

## University Educators for Sustainable Development (UE4SD)

# Prentsa oharra: UE4SD proiektua ixteko biltzarra eta unibertsitate hezitzaileentzako sareko baliabideen plataformaren aurkezpena

**2016ko ekainaren 29a, Gibraltarreko Unibertsitatea**

Joan den ekainaren 27an eta 28an izan zen “Las universidades como modelos de cambio: la educación para la sostenibilidad ilumina caminos para un mundo nuevo” izeneko nazioarteko biltzarra, Gibraltarreko Unibertsitatean. Biltzarra UNESCOren Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH) Ekintza Globaleko Planaren (EGP) barruan egin da, eta ekarpena egin die Garapen Iraunkorreko Helburuei; horien arabera, beharrezkoa da unibertsitate hezitzaileei laguntzea, irakaskuntza eta ikaskuntza garapen iraunkorraren bidean jartzeko. Halaber, Europako Batzordeak diruz laguntzen duen *University Educators for Sustainable Development* (UE4SD) proiektuaren azken bilera egin zen, eta GIHren arloko garapen profesionalari buruzko jardunbide egokiak identifikatu eta dokumentatu zituzten. Jardunbideok, hain zuzen, inspirazio iturri izan daitezke hezkuntzaren xedea egokitu eta aldaketa sozialaren eredu bihurtu nahi duten unibertsitateentzat. Mundu osoko 100 partaide baino gehiago izan ziren biltzarrean, eta hizpide izan zituzten GIHren arloko nazioarteko esparruak; unibertsitatek eta zehazki unibertsitate hezitzaileek GIHren prozesuetan daukaten egitekoa; eta, maila praktikoagoan, hezitzaileek elkarrekin harremanetan eta lankidetzan jarduteko etorkizuneko aukerak. Bestalde, biltzarraren harira egin ziren hiru saioetan, garapen profesionala lantzeko neurrien proposamenak, aldatzeko aukerak eta kalitatea eta lankidetzak lortzeko bideak izan ziren gai nagusiak.

Gibraltarreko biltzarrean, UE4SD proiektuaren harira sortutako web tresna aparteko bat aurkeztu zuten: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren (GIH) arloko garapen profesionalerako sareko plataforma. Alexander Leicht doktoreak aurkeztu zuen plataforma, Parisko UNESCOren “Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza eta Biztanleria Globala” ataleko buruak. Plataforma, hain zuzen, hezkuntza eta ikaskuntza prozesuetan dihardutenei gaitasun eraldatzaileak, etorkizuneko ikuspegia eta kontzientzia globala profesionalki garatzen laguntzeko baliabide bat da. Hala, plataformak hezitzaileak antolatzen laguntzen die hezitzaileei, eta gaitasun horiek lortzen ikasleei.

Sareko plataforma horretan, Europa osoan identifikaturiko jardunbide egokiak eta proiektuaren barruan egindako jarduera berriak jaso dira. Alegia, ikaskuntza profesionalaren eta hezitzaileek GIHren arloko gaitasunak garatzearen inguruko materialen lehendabiziko bilduma da.

Plataformak hauek biltzen ditu:

- Unibertsitate hezitzaileek GIHren arloko garapen profesionala lantzeko jardunbide egokien 26 adibide.
- UE4SD Akademiaren aurrez aurreko saioaren esparrua, diseinua eta erabilitako materialak.
- UE4SD proiektua gauzatu bitartean bildu diren GIHri buruzko ideia, gidaliburu eta material berriak.
- Europako GIHren politikari buruzko berrikuspina eta intereseko argitalpen eta testuak.
- UE4SD proiektuko kideen bideoak, non unibertsitate irakasleek GIHren arloko garapen profesionalaren esperientziak partekatzen baitituzte.

Plataforma UE4SD proiektuaren tresna eta produktu moldagarri berrietako bat da; horiei esker, GIHren jardunbidea berritu daiteke etorkizunean, eta aldatu egin daiteke GIHren inguruko ezagutza eta unibertsitate hezitzaileen garapen profesionalarekin duen lotura. Hezkuntza lehentasun horretan interesa dutenek baliabide hori har dezakete oinarri, eta Copernicus Alliance goi mailako hezkuntza erakundeen sarean esku hartu.

Esteka honetan eskuragarri dago biltzarrari buruzko informazio guztia: <http://www.ue4sd.eu/gibraltar>.

UE4SD proiektutik sortutako plataforma Europako Batzordeak lagundu du diruz, Lifelong Learning programaren bidez. Esteka honetan eskura daiteke plataforma: [www.platform.ue4sd.eu](http://www.platform.ue4sd.eu).

*Leading Practice Publication-i buruzko informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan Gloucestershireko Unibertsitateko Work Package Lead Alex Ryan doktorearekin: [aryan@glos.ac.uk](mailto:aryan@glos.ac.uk).*

*UE4SD proiektuari buruzko informazio gehiago eskura dezakezu, harremanetan jarrita Gibraltarreko Unibertsitateko Project Lead Daniella Tilbury irakaslearekin ([daniella.tilbury@unigib.edu.gi](mailto:daniella.tilbury@unigib.edu.gi)) edo Gloucestershireko Unibertsitateko Project Coordinatorarekin ([ue4sd@glos.ac.uk](mailto:ue4sd@glos.ac.uk)); bestela, jo ezazu proiektuaren webgunera: <http://www.ue4sd.eu>.*